



EL IRATI, S.A. erakusketa, inauguratuta

Pasa den irailaren 22an Agoizko Udalak inauguratu zuen pasa den mendean sortutako El Irati S.A. enpresa multzoaren inguruko testigantza jasotzen duen erakusketa. Enpresa herriko eta eskualde osoko industriaren motorra izan, eta lana eman zien mila pertsonari baino gehiagori.

Kultur Etxeko erakusketa aretoa txikia suertatu zen, erakusketa honek sortutako kuriositatea zela eta, bertara hurbildu ziren guztiak jasotzeko. Hurbildutakoen artean, besteak beste, herriko jendea eta Longida ibarrekoa, langile ohiak, Gobernuko eta instituzioetako ordezkariak, entitate laguntzaileak, eta arretaz entzun zituzten lan-taldeak emandako adierazpenak.

Prestatzeko urteko lanaren ondoren, Carmen Cosín zinegotzi eta

erakusketaren koordinatzaileak ongi etorria eman zien bertarutako guztiei; ondoren Unai Lakok alkateak hitza hartu eta azpimarratu zuen azken bi legegintzaldietan Udalak ondarea, kultura eta historiaren alde egindako lana, eta horrekin lotutako proiektu eta inizatibak birpasatu zituen. Ondoren Toño Villanueva mintzatu zen, Juan Jesús Leacherekin batera Zerrategia auzoko maketa izugarri eta ikusgarria prestatu zuena. Alfredo León erakusketako eta elementu grafikoaren diseinatzaileak, berriz, eskerrak eman zituen honelako taimainako erakusketak profesionalki zein pertsonalki suposatu izan duen ikaspenagatik. Bukatzeko, Víctor Manuel Egiak, adierazpen-panelen testuak egin zituenak eta Carlos García Cederna-Garalurreko agentearekin batera erakusketa bultzatu zuenak, agerian utzi nahi izan zuen

El Irati, S.A. zein garrantzitsua izan zen Agoizko eta eskualdeko bizitzan, hala nola Ekaiko zerrategia auzoko hondarren kontserbazioa eta egonkortasuna aldarrikatu.

Publikoaren artean izan ziren ere, Isabel Leache, Agoizko tren geltokiko maketaren egilea, Idoia Zabalza, erakusketako testu guztien itzultzailea, eta Javier Goicoa, material zenbait eta eskulasa baten maketa utzi duena.

Erakusketa hau aurki ikusgai egonen da Nafarroako Artxibategian, hala nola beste herri batzuetan. Erakusketa iraunkor bilakatu nahi da, eta herriko turismo erakargarri modura erabili.



Juan Antxietari buruzko proiektua aurkeztu da

Pasa den irailaren 6an aurkeztu zen San Migel elizan Juan Antxietak utzitako legatua ezagutzera emateko prestatutako proiektua. Antolatzaileek, alkateek eta instituzioetako ordezkariak hitza hartu zuten ekitaldian; eta, aurkezpena borobiltzeko, San Migel abesbatzak artistaren garaiko pieza batzuk eskaini zituen.

Tafalla, Agoitz, Kaseda eta Añorbeko udalek, Nafarroako Printzea instituzioarekin batera, eskultorearen obra ezagutzera eman nahi dute, eta bisitaldi gidatuak antolatu dituzte eskultoreak Nafarroan zituen 4 erretaulak ikusteko.

Cederna Garalurrek Agoitzen duen zerbitzutik eta Nafarroako Erdialdeko Partzuergoak Tafallan eta Añorben dituen bulegoetatik garatu da ideia eta martxan jartzeko koordinazio lana egin dute. Karekin Kultura kultura gestiorako enpresak, Kati Leatxe agoizkoak zuzentzen duenak, gauzatu du inizatiba.

Proiektuaren helburu nagusia 4 erretaula horien aberastasun artistikoa, hala nola Juan Antxieta haien

egilearena, herri horietako biztanleei, Nafarroa osoari eta turistei ezagutzera ematea da.

Kartelak eta 4000 liburuxka argitaratu dira, ele bietan. Horretaz gain, berriki gida didaktiko bat argitaratuko da Lehen Hezkuntzako 5. Mailako ikasleentzako. Hori ere gazteleraz eta euskaraz argitaratuko da.



Agoitzek guda zibileko biktimak omendu ditu

1936. urteko kolpearen ondorengo guda zibilean fusilatutako Agoizko eta Longidako 24 herritarrak eta errepresaliatutako emakumeak omendu ziren berriki estreinatutako Oroitzapenaren parkean. Aitortza adierazteko hitz batzuen ondoren, Unai Lako alkateak eta Ana Ollo Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako

kontseilariak agerikoa egin zuten parkeari izena ematen dion plaka. Parkea guda eta frankismoaren biktimen oroitarriaren ondoan dago. Herritar asko agertu ziren ekitaldira. Bertan, dantzariak eta txistulariak (aurresku bat eskaini zitzaizen) eta Las Milas Agoizkoak taldeak parte hartu zuten.



4 agoizko, Gurseko presoan artean

Uxue Barkos Nafarroako presidentek, duela gutxi zuzendu zuen 1939-1945 urteren bitartean Gurseko kontzentrazio-esparruan (Akitaniako Oloroneko Santa Maria herrian) egondako bostehun bat nafarren alde egin zen omenaldi instituzionaleko ekitaldia.

Omenaldia gauzatzeko, monolito bat inauguratu zen, historiaren pasarte ilun horretan Nafarroak izan zuen presentzia agerian utziko duena.



«Gaur inauguratzen dugun monumentuaren bidez, Gurseko kontzentrazio-eremu honetan egondako 500 nafarren oroimena betiko gorde nahi dugu», adierazi zuen presidentek. «Bostehun pertsona, 1936. udan beren azalean jazarri zutenak Nafarroa suntsituta utzi zuten jazarpena eta errepresioa. Denek ezin izan zuten beren burua salbatu. 3.000 baino gehiago fusilatu zituzten gure lurretan. Beste pertsona asko kartzelan sartu, araztu, lotsarazi zituzten gure gizartean orbain handiak utzi zituen errepresio-aldi bortitz batean. Mina isilarazi zen, urte askoz. Gertakizunen memoria ezabatzeko garaia zabaldu zuten, familiakoek eta hurbilekoek hainbeste hamarkadetan zehar izan duzuen babesgabea handitzea eragin zuena».

Mila erdiko nafar horien artean, lau agoiztar: José Etxebarria Belaskoain, Baldomero Ilzarbe Jaúregui, Rafael Urdirioz Apezarena eta Esteban Usunariz Vicente.

Parte-hartze handia Sanmigeletan

Herriko jende askoren partaidetza izan zen Agoizko Udalak, Angiluerreka elkartearekin, Jubilatuen elkartearekin eta Guraso Elkarteekin batera Sanmigelak ospatzeko antolatutako ekitaldietan.

Laura Goñi López izan zen Jubilatuen Elkarteak zeharrek omentzeko urtero antolatzen duen ekitaldiko omendua, eta plaka bat jaso zuen horregatik. Agoizko Udalak ere parte hartu zuen omenaldi horretan, eta josteko makina baten irudia oparitu zion Agoizko jostun ospetsu izandakoari. Horretaz gain, omenaldia egin zitzaizen bikote hauei, beren urrezko ezteiak betetzeagatik: Javier Aquerreta eta Clara Retari, Adolfo Villanueva eta Socorro Erdozáini, Fernando Gil eta Isabel Beloquiri.

Hirugarren urtez 80 bat herritarrek irudikatu zuen, alde batetik, Nafarroa beheera plazan, 1479. urtean agaramontar eta beaumontarren artean izan zen guda eta ondorengo bakearen sinatzea eta, bestaldetik, herriko ehungileen lana. Agoizko Dantzari taldea izan zen bultzatzailea. Merkatuko plazan egindako hamaketakoaren ondoren, dantzariak kalejiran joan ziren Nafarroa Beherea plazara, eta bertan bi ejertzitoen gatazka eta ondoren Magdalena printzesaren aurrean sinatutako bakea irudikatu zuten.

Jai txikietan, berriro ere, Tolosako Iraunkorrek txaranga egon da. Merkatuko plazan jarritako karpan 130 bat pertsona bildu zituen herri bazkariko bazkalondoan giroa jarri zuten.



Iraileko kulturaren balantzea

Irailean zehar garatutako kultur agendan alternatiba zenbait eskaini dira. El Irati S.A.-ri buruzko erakusketaz gain, nabarmentzekoak dira honako jarduerak: Juan Antxieta eskultorearen inguruko proiektuaren aurkezpena, Demode Quartet taldearen emanaldia («Musikal guztiak edo ia guztiak», Kultur Etxean gainezka jarritako entzutegian). Taldeko lau kidek publi-

koa atsegindu zuten zuzenean a cappella aurkeztu zituzten abestiekin (20 musikal ezagunen piezak).

Gainera, San Miguel abesbatzak berriz ere harritu gintuen opera eta zartzuela abesbatzen inguruan eskainitako errepertorioarekin.



Agoitz Kataluniarekin, demokraziarekin

Agoizko Udalak egindako bilkura berezi batean onetsi zuten Kataluniako herriaren aldeko mozioa, estatuko gobernuak Madriletik bide demokratikoen aurka ermaten ari den erasoaldi larria dela eta.

rritarrek demokratikoki hautatutako alkateak deklaratzera joateko errekerimendua.

Horren bidez, Agoizko Udalak aintzat hartzen du Kataluniako Parlamentuak burutu duen erreferendumaren legitimitatea. Gainera, salatu eta errefusatu du estatu espainiarrak Kataluniako herriak eta Parlamentuak hartutako erabakien aurka bultzaturiko eraso eta guztiz errefusatu du Kataluniako he-

Agoizko udalak Euskal Herrian, Katalunian edo munduko edozein lekutan herritarren borondatean oinarritutako prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartu du. Modu berean errespetatzen du urriaren 1ean egindako erreferendumean izandako emaitza, eta instituzio eta erakundeei errespetatzeko eskaria egiten die.



Balorazio ponentzia, berriturik

Tracasa enpresa publikoari eskatu dio Agoizko Udalak balorazio ponentzia eguneratzeko lanak. Balorazio dokumentu teknikoak dira, udalerriko edo udalerriz gaindiko eremuetan aplikatzekoak. Haien helburua da eraikin bakoitzaren balio indibiduala zehazteko metodo eta parametro teknikoak finkatzea.

Ondasun (lur-zati, soto, pisu...) bakoitzaren balioa kalkulatzeko egiten den lana da. Horretan oinarrituta zehazten da auzokide bakoitzak ordaindu behar duen kontribuzioaren zerga.

Legeak ponentzia bost urtean behin berritzera behartzen du.



Momentu honetan 2004ko ponentziaren datuak erabiltzen ari gara, hau da, 2009. urtean berritu behar izan genuen.

Irailean zehar lana herritarren eskura izan da, eta pasa den irailaren 12an udalak hitzaldi informatibo bat antolatu zuen prozesuaren berri emateko, katastroa berritzen ari direnekin.

Ponentzia berriak 2018. urtean hartuko du indarra, eta horren inguruko zehaztapenak behin betiko onestutakoan emanen ditugu.

Auzo berriak, ongi seinaleztatuta

Agoizko Udalak berriki jarri ditu herriko auzo berriak izenekin seinaleztatzeko errotuluak. Udalak bete du, modu horretan, auzo horietan bizi direnekin auzoko bilkuretan hartutako konpromisoa. Izan ere, bertako bizilagunek herriko periferiako auzoak seinaleztatzea eskatu izan dute, aurreko egoerak

okerrerako bidea ematen zuelako. Seinale berriak daude, besteak beste, Kanpondoa, Irati auzoetan. Ele bietan jarri dira, udaleko arautegiari jarraikiz. Datozen asteetan zehar jarriko dira gainerako seinaleak, herriko auzo guztiak errotulatu arte.



Agoitzek sexu erasoei EZETZ dio

Azken hilabeteetan, tamalez, Euskal Herriko Emakumeen Martxak antolatuta, elkartu behar izan dugu bortizkeria matxista errefusatzeko.

Agoizko Udalak bere laguntza eta elkartasuna adierazi nahi die bortizkeria matxista eragindako biktimia guztiei.



María Beaumontek, 105 urte

Pasa den irailaren 2an gure herriko María Beaumontek 105 urte bete zituen. Agoizko Udalak adierazpen bat egin nahi zion, eta lore sorta bat igorri zion merezitako urteurrena ospatzeko. Zorionak, María!



Helduek euskalduntzeko kanpaina

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bidez, eta 32 toki entitatek (Agoitz barne), euskaltegi publiko eta sozial guztien laguntzarekin, martxan jarri dute 'Disfruta en el euskaltegi, gozatu euskara' kanpaina, helduen euskalduntzea bultzatzeko 2017-2018 ikasturte honetan.

Kanpainaren helburua da helduak euskara ikasten hasi edo jarraitzeko animatzea, irailean zehar matrikula egiteko epeak zabalik daudela kontuan hartuta.

Bi alderdi nabarmendu nahi izan dira kanpainaren bidez: batetik, euskarak kulturaz gozatzeko eta harreman sarea handitzeko aukera ezin hobea eskaintzen duela eta, bestetik, euskaltegiek eta pertsonen inguru sozialak lagungarri gertatzen direla ikasketa prozesua arrakastatsua izan dadin.

Agoizko Udalak, euskara zerbitzua- ren bidez, ikasteko dirulaguntzak ematen ditu, gehienez ere matrikularen %50a arte.

DISFRUTA EN
EL EUSKALTEGI
GOZATU
EUSKARA!



Erremonte txapelketa, aurkeztuta

Pasa den irailaren 20an Eguesibarko udaletxean izan zen Nafarroako Foru Komunitateko Txapelketa-Magna Saria 2017-ren aurkezpena. Ekitaldian herriko zenbait ordezkari izan ziren, Unai Lako alkatea horien artean, Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioaren kudeatzailea eta txapelketan parte hartuko duten bi erremontista.

Unai Lakok nabarmendu zuen Agoizko Udalak herriko erremonte eskolarekin izan duen inplikazioa, eta eskola horretatik gaur egun profesional mailan ari diren bi erremontista atera direla. Horregatik, Udala Fundazioarekin batera lankidetzan ari dira pilota modalitate hau bultzatzeko.

